



## Andoaingo Udalak ordutegiak gogoratu nahi ditu deseskalada fase honetan

Andoaingo herritar gehienek portaera eredugarria izaten ari bada ere, oraindik egoera ez gomendagarriak gertatzen dira.

Horregatik, Andoaingo Udalak **paseatzeko irteeretan ezarri diren ordutarteak** gogorarazi nahi ditu:

- **14 urtetik gorakoak:** 06:00etatik 10:00etara eta 20:00etatik 23:00etara.
- **70 urtetik gorakoak edo zaintzailea duten mendeko pertsonak:** 10:00etatik 12:00etara eta 19:00etatik 20:00etara.
- **14 urtetik beherakoak:** gehienez 3, eta pertsona heldu batekin: 12:00etatik 19:00etara.

Kasu horietan guztietan, **gogoratu 1-1-1-1:**

- Egunean behin baino ezin da irten.
- Ordubete gehienez ordu-tarte horietan.
- Kilometro 1, gehienez.
- Bizikide batekin egin daitezke. Lagun egin behar duten pertsonak zaintzaile batekin ere egin ahal izango dute.

**Kirol ez-profesionalari** dagokionez, ordutegia 06:00etatik 10:00etara eta 20:00etatik 23:00etara izango litzateke. Kasu horietan, gogoratu kirolak banakakoa izan behar duela, beste pertsona batzuekin harremanik izan gabe. Egunean behin eta udalerraren barruan bakarrik atera daitezke (mugak: Trentxiki: Bertxin zentraleraino; Aduna: Irizar enpresaren biribilguneraino; Urnieta: Cepsa gasolindegaren ondoan dagoen biribilguneraino).

**Kasu guztietan, segurtasun-distantzia mantendu behar da, eta sintomak dituzten edo berrogeialdian dauden pertsonak baztertzen dira.**



## Andoaingo Udala

---



Bestalde, Andoaingo Udalak honako hau jakinarazi nahi du:

- Gizarte zerbitzuak:
  - Podologia: aurrez hitzordua eskatuta erantzungo da, **943 304 343** telefonora deituta
  - Ile-apainketa: aurrez hitzordua eskatuta erantzungo da, **943 304 343** telefonora deituta.
- Udal artxiboa: aldez aurretik hitzordua eskatuta erantzungo da, **943 300 830** telefonora deituta (**Ext. - 344**).
- Udaleko bilkurak: gaurtik aurrera, Udaleko órgano kolegiatuen bilkurak (Batzorde Informatzaileak, Tokiko Gobernu Batzarra eta Udalbatzarrak) ezarriko dira. Gaur egin da lehen batzordea.
- Skatepark-aren erabilera: Maiatzaren 18ra arte itxita egongo da, izan ere, falta zen argiztapena jarri dute eta aste honetan belarra ateratzeko haziak botako dituzte.  
Ildo horretan, gogorarazten da skatea "kirol ez-profesionala" atalean adierazitako baldintzetan eta udalerrriaren inguruan egin daitekeela, baina maiatzaren 18ra arte ezin izango da Skateparkeko instalazioa erabili.

Andoaingo Udalak merkatariari eta bezeroei gogorarazi nahi diegu uneoro errespetatu behar dituztela KOBID-19aren transmisioa saihesteko adierazitako segurtasun-neurriak. Pertsonen artean 2 metroko distantziari eustea, merkatariak zein bezeroek maskara erabiltzea eta eskuak etengabe garbitzea bezalako neurriak. Hasierako deseskalatze-fasean gaude, eta orain inoiz baino garrantzitsuagoak dira neurri horiek.

Azkenik, Andoaingo Udalak eskerrak eman nahi dizkie txalo zaparradaren ostean musika jartzen ari direnei, beren borondatez, udalerriko bizitza alaitzen saiatzeagatik. Hala ere, kexa batzuk jaso ondoren eta herritar guztien atsedeen-ordutegiak errespetatze aldera, musika jartzeko ordutegia 20: 00etatik 20: 30era bitartekoa dela gogorarazi dute.

Andoain, 2020ko maiatzak 5



Andoaingo Udala



## El Ayuntamiento de Andoain quiere recordar los horarios en esta fase de desescalada

Aunque el comportamiento de la mayor parte la ciudadanía de Andoain está siendo ejemplar, todavía se producen situaciones no recomendables.

Es por ello que el Ayuntamiento de Andoain quiere recordar **las franjas horarias que se han establecido en las salidas para pasear:**

- **Personas de 14 años en adelante:** de 06:00h a 10:00h y de 20:00h a 23:00h.
- **Mayores de 70 años o personas dependientes con cuidador:** de 10:00h a 12:00h y de 19:00h a 20:00h.
- **Menores de 14 años:** máximo 3 y con una persona adulta: de 12:00h a 19:00h.

En todos estos casos, **recuerden 1-1-1-1:**

- Sólo se puede salir 1 vez al día.
- 1 hora como máximo en esos tramos horarios.
- 1 kilómetro como máximo.
- Se pueden realizar con 1 persona conviviente. Las personas que tengan que salir acompañadas podrán hacerlo también con 1 cuidador.

De cara al **Deporte no profesional**, el horario sería de 06:00h a 10:00h y de 20:00h a 23:00h. En estos casos, recordar también que el deporte debe ser individual, sin contacto con otras personas. Sólo se puede salir 1 vez al día y dentro del municipio (límites: Trentxiki: hasta la Central de Bertxin; Aduna: hasta la rotonda de la empresa Irizar; Urnieta: hasta la rotonda que está al lado de la gasolinera de Cepsa).

**En todos los casos, debe mantenerse la distancia de seguridad y se excluyen las personas con síntomas o en cuarentena.**



Andoaingo Udala



Por otro lado, el Ayuntamiento de Andoain quiere informar que:

- Servicios Sociales:
  - Podología: se atenderá con cita previa llamando al **943 304 343**.
  - Peluquería: se atenderá con cita previa llamando al **943 304 343**.
- Archivo municipal: se atenderá con cita previa llamando al **943 300 830 (Ext - 344)**.
- Sesiones municipales: se han restablecido las sesiones de los órganos colegiados municipales (Comisiones Informativas, Junta de Gobierno Local y Plenos).
- Utilización del skatepark: permanecerá cerrado hasta el próximo 18 de mayo, ya que se ha procedido a colocar la iluminación que faltaba y esta semana se va a proceder a echar las semillas para que salga la hierba.  
En este sentido, se recuerda que la práctica del skate está permitida en las condiciones indicadas en el apartado "*Deporte no profesional*" y en el entorno del municipio, pero hasta el 18 de mayo no se podrá utilizar la instalación del Skatepark.

El Ayuntamiento de Andoain quiere recordar tanto a comerciantes como a clientes, que deben respetar en todo momento las medidas de seguridad indicadas para evitar la transmisión del COVID19. Medidas como mantener 2 metros de distancia entre las personas, el uso de la mascarilla tanto por comerciantes como por clientes y llevar a cabo un lavado de manos continuo. Nos encontramos en una fase inicial de desescalada y ahora más que nunca son importantes estas medidas.

Por último, el Ayuntamiento de Andoain quiere agradecer a las personas que de forma espontánea y voluntaria están poniendo la música después de los aplausos por tratar de alegrar la vida del municipio. No obstante, tras recibir algunas quejas y de cara a respetar los horarios de descanso de toda la ciudadanía, se recuerda que el horario para poner la música es entre las 20:00 y las 20:30h.

Andoain, 5 de mayo de 2020